



ZALDIBIAKO  
UDALA  
zaldibia.eus

## IRITZI BILKETA: GOIERRI RALLYSPRINTA

Azken urteetan urtero antolatzen den ekimena da **Goierrri Rallysprinta**, aurten VIII. edizioa jokatu berri delarik. Ibilbidean zehar Gaintza, Zaldibia eta Lazkaoko Lazkao-mendi auzoa hartzen ditu. Lazkaoko IKULLU RACING elkarteak antolatzen du eta Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren baimenak behar izateaz gainera, Zaldibiako herri bideetatik ere pasatzen denez, Zaldibiako Udalak badu zer esanik.

Hainbat izan dira urtez urte lasterketa honen harira denetariko iritziak helarazi dituzten herritarrak. Aurten bereziki, zuzenean nahiz udaletxean idatziak aurkeztuz, eskaera, proposamen edo kexa asko heldu dira.

Hau honela izanda, eta ekitaldi honek duen eragin maila eta eremua kontuan hartuta, **IRITZI JASOTZE ARIKETA FORMALA** burutzea erabaki dugu. Hala nahi duten Zaldibiako herritar guztien iritziak bilduko ditugu eta **JASOTAKO INFORMAZIOA LEHEN OINARRIA JARTZEKO EZINBESTEKOA** izango da. Iritzi kopuru eta emaitzen arabera ikusiko dugu jarraian zein urrats ematea dagokigun.

Horregatik, **ZALDIBITAR BAT, IRTIZI BAT** irizpidea jarraituz, herrian erroldatuta egon eta 16 urte edo gehiago dituztenek izango dute iritzia emateko aukera. Horretarako, bi bide jarri dira:

### AURREZ AURRE:

**NOIZ:** martxoak 30, 31 eta apirilak 3, 4, eta 5.

**ORDUAK ETA LEKUA:** 8:30-15:30 udaletxeko harreran  
15:00-19:30 kultur etxean.

**ORRIAK:** etxe bakoitzera iritzi-orri bat banatu bada ere, udaletxean eta kultur etxean eskuragarri daude orri gehiago etxeko guztiek iritzia eman ahal izateko.

### ONLINE:

**NOIZ:** martxoaren 30etik apirilaren 5era.

**NON:** - [www.zaldibia.eus](http://www.zaldibia.eus) webgunean

- [zaldibia.eus/qr/rally](http://zaldibia.eus/qr/rally) helbidean

- Mugikorrarekin QR kode hau irakurrita →





# Zaldibiako Udalaren IRITZI BILKETA: GOIERRI RALLYSPRINTA

IZEN-ABIZENAK edo Nortasun Agiri zenbakia: \_\_\_\_\_

JAIOTZA-DATA: \_\_\_\_\_

OHARRA: Izen-abizenak edo Nortasun Agiri zenbakia (bietako bat) eta jaiotza-data jartzea derrigorrezkoa izango da galdetegia ontzat emateko. Datu hauek soilik *Herritar bat, iritzi bat* irizpidea bermatzeko erabiliko dira. Ez beste ezertarako, eta ez dira inon publikatuko.

## IRITZI BILKETA:

Rallya, oro har esanda...

- ... begi onez ikusten dut
- ... begi txarrez ikusten dut
- ... ez daukat hain garbi

Zergatik? Arrazoitu aurreko erantzuna, mesedez.

---

---

---

---

Hauetako zein ikusiko zenuke edo zenituzke egoki? (nahi adina aukeratu)

- Rallya ORAIN ARTE BEZALA egitea
- Rallya urtero egin bai, baina IRAUPEN LABURRAGOIA IZATEA (bakarrik goizez, edo bakarrik arratsaldez)
- Rallya egin bai, baina ZALDIBIATIK URTERO EZ PASATZEA (bi, hiru edo lau urtez behin egitea)
- Rallya egin BAI, baina goizeko lehen orduan, eguerdian eta iluntzean Zaldibiako herritarrentzako ZIRKULAZIOA IREKIZ aurrez zehaztutako ordu-tarteetan
- Rallya berriro ZALDIBIATIK EZ PASATZEA
- Beste aukeraren bat (zehaztu jarraian):

---

---